

# DEMOKRAZIA HELETAN FRANTZIAKO IRAULTZA AITZIN

Xipri Arbelbide

Idazlea

Heletako biltzarreen txostenak irakurtzean ohartu nintzen 1789ko maiatzeko biltzarrean 4 emazte eta etxetiar edo maizter pila bat bazela: Nabarrako legeen arabera, etxeko nagusiek baizik ez zezaketen parte har biltzar horretan. Ikerketak jarraikiz, beste biltzar batzutan ere etxetiarrek parte hartu zutela ohartu gara eta behin, etxetiar bat jurado edo kontzejal hautatsi zutela. Bestetan ere gerta zitekeen zeren eta Estatuak oroitara zuten, lege zaharraren arabera, etxeko nagusiek baizik ez zezaketela parte har biltzarrean. Nabarrako demokrazia eboluzionatzen ari zen baseak bultzaturik.

Duela zenbait urte, Herriko paper zaharrak irakurtzen hasi nintzelarik, gauza batek harritu ninduen. 1789an, herriko biltzar batean baziren bi emazte, biak alargunak, eta partaideen zerrendan jurado edo herriko gizonen ondotik lehenak emanak ziren, beste guztiak baino lehen. Urrunago, baziren beste biga, marratuak, baina biltzarrera etorri zirela ez zen dudarik. Partaide batzurentzat emana zen etxetiarrak zirela.

Baxe Nabarreko erresumaren azken hilabeteak ziren. Lehenago Nabarran zeuzkaten lege berak zituzten: Herriko biltzarrean parte har zezaketen gizonak, etxe baten jabe zirelarik bakarrik, etxeko nagusi.

Heletan puntu hori nola bizi zuten argitzen duten dokumentu batzuek aurkituko dituzue artikulu honen bukaeran. Kronologikoki emanak ditugu baina ikerketak ez dira kronologikoki iragan.

Lehenik aipatuko dugu 1789ko maiatzaren 28an iragan biltzar hori: 3. dokumentua.

Gero urte eta hilabete bereko 31an iragan zena etxezainik gabe: 4. dokumentua.

Hirugarrenekorik 1782an, Nabarrako Estaduek, biltzarrez oroitarazten duten ohitura zaharra: bigarren dokumentua.

Laugarrenekorik, 1749an jadanik Heleta ohituraz kanpo ari zelako frogak: etxezainak biltzarrean eta juradoetan: 1. dokumentua.

Bosgarrenekorik ikusten dugu etxezainek ez dutela biltzarretik kanpo izatea onartzen: 5. dokumentua.

Azken bi dokumentuekin sartzen gara Frantziako iraultzan eta erakusten digute Heletarren jukutria, ahal bezainbat herritarrek izan zezaten botoa emateko eskubidea: 6. eta 7. dokumentuak.

---

### **Etxezain eta emazte herriko biltzarrean (3.D.)**

---

1789ko maiatzaren 28an Heletarrak bildu ziren ohi bezala elizako kalustrapean. Mendiry Nafarroako subdelegatuak igorri gutun baten berri emana izan zitzaizen herritarrei maiatzaren 10ean izan biltzar batean. Egun hartan erabaki zen 17an bilduko zirela gutun horretaz mintzatzeko: gogoetak egiteko hartu zuketan aste baten epea. Herriko kainerrean ez dugu bi biltzar horien hatzik ikusi.

28an, berekin zuten Santa Mariako jauna, Heletarra, Arberuko jujea, legeen berri zekiena beraz: honek egingen du frantsesez idatzia zen gutun horren itzulpena "en langue vulgaire".

17an bildu zirelarik, Garrako jaunak oihu egin zuen ez zela deliberatu behar. Zergatik, ez dakigu. Dena den, 28an bildu ziren berriz, eta ez igandearekin aldi honetan. Bizkitartean, kaierrak aipatzen dituen edozein biltzarretan baino aise gehiago jende bildu da aldi honetan: 95, beste aldiz, nahiz meztatik lekora egiten den biltzarra, eta ez duten espresuki

horretarako etortzerik, berrogei bat dira eta batzutan hogei eta hamarrez petik. Hortatik ageri da biltzarraren gaiak hurbiletik hunkitzen zituela heletarrak.

1750az geroz, hamabostetik merkatu bat bada Heletan larunbatarekin; bi feria, abuztuaren 16an eta azaroaren 25an. Heletarrek erran behar dute heian nahi duten "octroi" bat pagatua izan dadin Heletan, erran nahi bait da, merkatuan sartzeko salgai diren gauza guztiek zerbait pagatu behar dutela. Ondorioz zerga gutxiago liteke Heletarrentzat.

Heletarrek erraten dute ez dutela merkatu-saririk pagatu nahi, Nabarrako ohitura eta berezitasunen kontra doalaketz. Pentsatzeko da Heletar gehienei, urte oroz pagatu behar zuten baino gehiago kostako zitzaizela merkatuan saltzeko ekartzen zutenentzat zerbait ematea.

Aho batez Balantin Etxeberri Irigoineko nagusia izendatzen dute behar dena egin dezan delako merkatu-saria kendua izan dadin: kendua, horrek erran nahi du, orduan martxan zela. Eta biltzarrak erakusten digu norbaitek zerbait egin zuela gauzak aldatzeko.

Biltzar horretan ditugu beraz zerbait kargu zutenen ondotik (Zubiburuko Domingo, biltzarra deitu zuen juradoa, Karrikart idazlaria, Santamariako Xarlex, itzultzailea) eta etxeko jaun xoil bakar baten ondotik (Eiherabideko nagusi gaztea) bi emazte izenak: Etxeberriko

eta Iribarneko alargunak. Gero heldu dira beste etxeko jaunak. Uste dut bi gauza horiek azpimarratu behar direla: bat, emazteak hor zirela; bi, etxeko jaunak baino lehen emanak direla. Etxeko jaunak dira "le Sr" daukatenak aintzinetik: "le sieur", hots, jauna. Bi hitz horiek gabe diren guziak etxezainak edo etxetiarrak dirala. Iribarne Etxezaharreko Pierrentzat garbiki emana da etxezaina dela, "métayer", hain segur Iribarneko alarguna ere hor zelakotz.

Etxezain horien artean beste bi emazte: Lakoko Mari eta Baratxarteko Mari. Biak marratuak dira. Izenak idatzi baldin badituzte, hor ziren. Gero dira marratuak izan. Zergatik? Etxeko andereak ofizialki onartuak zirelarik, etxezain baten emaztea onartzea handixko iduritu zitzaielakotz ote?

Horra beraz Nabarrako legez kanpo gertatzen den lehen gauza: etxezain eta emazteek parte hartzen dute herriko biltzarrean.

---

#### **Etxezain eta emazterik gabe (4.D.)**

---

Hiru egun berantago, Herriko biltzarra berriz ere hor dago kalustrapean maiatzaren 31n. Lau juradok deiturik: hauek dira Jean Durreltz, Pierre Garra, Baptiste Fagalde eta Joanne Rekart. Horietarik bat ere ez zen aitzineko biltzarrean ! Zubiburu, ez da gehiago Jurado bezala ekarria. Santamaria ez da hor. Idazlaria ez da gehiago Karrikart baina Urreltz notarioa. Lehen biltzarrean 31 etxeko

nagusi ziren, bigarreanean 44 eta hauetan 16 dira bi biltzarretan parte hartu dutenak. Bigarren biltzar honetan, Aintziburutik nagusi gaztea eta zaharra biak hor dira, batek baizik behar ez lukeelarik.

Etxeberritik alarguna etorria zelarik hiru egun lehenago, oraingoan nagusi gaztea da hor: larderia bazukeen emazte horrek, legez biltzarrera joan behar zuen gizona etxean izanki eta bera joateko! Eta beste Heletarrek onartu zuten halere.

Zenbait urte berantago egin 76 etxeko nagusien zerrenda bat badugu, bakoitzak zenbat zerga pagatu behar zuen erakusten digu. 38 aberatsenak eta beste 38ak hartuz, aberatsenetan 10 ziren 29ko biltzarrean eta 26 bigarreanean; bigarren mailakoetan 19 lehenean, 12 bigarreanean. Lehen biltzarrean ttipiak ziren nagusi etxezainak kontutan hartu gabe, are gehiago hauekin; bigarreanean aldiz handiak.

Hain zuzen biltzar horretan abisatuak dira, lurjabeek baizik ez dutela parte hartu behar biltzarretan: galtzen ari ziren botere hori berreskuratzeko ote ziren horrela mobilizatu nagusi handienak?

Biltzarren txostenak dio, ez dela gehiago biltzarrera deitu behar nagusi ez denik. Itxura guztien arabera beraz, deituak zirelaketoz ziren etortzen etxezainak eta ez beren baitarik! Eta ofizialki deituak baziren, gauza hori ez zen horrela noizean behinka, han-hemenka baizik egiten zena. Ohituretan sartzen ari zen.

Estaduen erabaki bat, korteak konfirmatua oroitarazten du, zein egunetakoak zen erran gabe. Heletako kaierrean aurkitu dugu Estaduen erabakiaren kopia. Hori dugu bigarren dokumentua.

---

### **Nafarroako estaduen erabakia (2.D.)**

1782ko otsailaren 24ean bildu ziren Nabarrako Estaduek, Arberuko diputatuen eskaera bati ematen diote errepostua. Juradoak hautatzen direlarik, ohituraren arabera zilegi ez diren gauza batzu ikusten dira: apezek, alargunek eta adinik ez dutenek, beren izenean igortzen dituzte sehiburuak edo etxezainak. Estaduek oroitarazten dute etxezain, sehiburu eta etxetiarrek biltzarretarik kanpo gelditu behar dutela.

Erabaki horretarik ikus daitekeen bezala, Heletatik kanpo ere baziren horrelakoak. Baina Heletan ikusi duguna hemen aipatua baino haratago joan da. 1789ko biltzar hartan ikusi ditugun etxezainak ez ziren alargun edo apezzen izenean etorriak baina beren izenean.

Bestalde, Estaduek ez dute aipatzen emazterik ibiltzen denik biltzar horietan. Heletan, gorago erran bezala, lau baziren. Horietatik batek, nagusi gaztea bazuelarik etxean.

Estaduen erabakiaren lehen parteak aipatzen dituen biltzarrak, jurado eta diru-biltzaileak izendatzen ziren biltzarrak baziren, testuaren bukaeran biltzar guztiak dira aipu: "Etxetiar,

sehiburu eta etxezainak herriko biltzarretatik kanpo egonen dira."

Heletan egiten zena, hemen aipatua dena baino haratago zihoan, eta nahiz erabaki hori Heletako kaierrean kopiatu izan den eta Heletarrek ezagutzen zuten, legezko bideetarik kanpo ibiltzen segitzen zuten. Odolean sartua zuten, lehen dokumentuak erakusten digun bezala.

---

### **Etxezaina jurado (1.D.)**

---

Aspaldi honetan paper zaharrak miatzen dituen Poupel Kanboarrak eman digu Paben dagoen dokumentu honen berri. 1749ko irailaren 21an, herriko biltzarra bildu da kalustrapean. 28 partaide baizik ez da izan biltzar honetan. Irisarri Berhok beretuak zituen Heletako lur komun batzuez zuten eztabaida. Baina zer ikusten dugu, 28 partaide horietan nahas-mahas, etxeko nagusi eta etxetiar: 20 nagusi eta 8 etxetiar. Eta gehiago dena, hiru juradoetarik bat, Pierre, Iroldoiko etxezaina dugu. 1782an Estaduek bait diote etxezainek ez dezaketela parte har juradoen izendatzean, Heletan harago joanak ziren 33 urte lehenago: etxezain bat izendatua zuten jurado!

---

### **Etxezainak eta etxetiarrak oldartzen (5.D.)**

---

Oldartzen hitza handixkoa dela aitortuko dut, baina 5. dokumentuak erakusten digu Heletako etxezainek ez zutela onartu biltzarretarik kanpo emanak izatea 1789ko maiatzaren

31ko Biltzarrak egin zuen bezala. Dokumentu hau ere Kanboko Poupel jaunak emana dit. Hemeretzi etxezain bildu dira Santamarian, Londaitz notarioa Aiherratik ekar arazirik.

Oroit Santamariako jauna hor zela, hainbeste etxezain eta lau emazte ziren biltzarre hartan. Notarioa Aiherrakoa, Heletan berean bat badelarik, Urreltz jauna: hau ez zen emazteak ziren biltzarrean baina bai, ohitura zaharra oroit arazi zuen ondoko biltzarrean. Iduriz, etxeko jaunetan bi ikusmolde baziren. Santamarirena, boterea zabalago nahi zuena; Urreltzena, hertsia goa, boterea jabeen eskutan gorde nahi zuena.

Dokumentu honetan, etxezainak plenni dira, 120 etxe direlarik, biltzar eta karguetarik kanpo emanak direla: Nabarrako Estaduen erabakiaren arabera, etxezainak baziren biltzarretan; ez zuen kargutan ere bazirela aipatzen; ikusi dugu 1749an, Heletan, etxezain bat bazela jurado.

Dokumentuak dio etxeko nagusiak 70 direla. Gure kontuen arabera 80 nagusi ziren eta 114 etxezain. Etxezainei zuzenkontrakoa zaie 80ek legea egitea beste 120ei, hauek ez dutelarik parte hartzen erabakietan: edo etxezainek biltzarretan parte har dezakete, kargutan sar daitezke, edo ez dute haien gabe egin biltzar batek erabaki zergak pagatzerik. Joanes Hiriart izendatzen dute beren sindika edo ordezkari bezala, behar dena egin dezan zuzengabekeria hori zuzentzeko.

Bi hitzez errateko, Baxe Nabarreko demokrazia zabaltzen ari ziren,

etxezainak ikusten ziren Herriko biltzarrean, alargun, apez edo adinik ez zuten lurjabeen izenean. Heletan haratago joanak ziren: beren izenean dute biltzarrean parte hartzen etxezainek; alargunek ez dute beste norbait igortzearen beharrik beren izenean, berak joaten bait dira. Etxezain emazteak ere sartzen dira biltzar horretan, osoki onartuak ez badira ere. Azkenik, jurado kargura izendatua ikusten dugu etxezain bat. Lege zaharrak ez zirela ezin hunkituak beste froga bat; Etxeberritik alarguna joaten da biltzar batera, nagusi gaztea badelarik etxean; Aintziburutik zaharra eta gaztea, biak han dira.

Demokraziaren berri baldin bazekien Nabarra zaharrak, Heletarrak ohiz baino haratago doaz eta herriko harat-honatetan parte hartzeko beharra sentitzen dutelako froga berri bat izanen dugu Iraultza frantsesak bere legeak eginen dituelarik. Hor ditugu 6. eta 7. dokumentuak.

---

### **Bozkatzeko eskubidea (6. eta 7.D.)**

---

Nabarran ez bazuten ere bozkatzeko eskubiderik ez emaztek, ez gizon guztiek, laurogei bat Heletarrek bazuten, bai eta herriko hautetsi izatekoa. Frantziarentzat iraultza handia izan zen zenbaiti eskubide hori ematea. Ez uste izan denei eman nahi zietela delako eskubidea. Frantziako Iraultza, burgesen iraultza izan da. Burgesek zuten beretu nahi, ordu arte nobleek zeukaten boterea. Ez zuten batere botere horretan, herri osoak parte hartzea amensten. Bozkatzeko

eskubidea aipatu zutelarik Parisen, baldintza batzu izan ziren. Gizonezkoa izan behar zuen, 25 urte beteak eta peoi baten hiru eguneko soldataren zerga pagatu. Azken baldintza honekin diete ixten herriko etxeko kutxaño hartan papera sartzeko eskubidea Frantses gehienei.

Heletarrek, ikusi dugun bezala, ez zuten bi sositan uztekoa herriko aferetan parte hartzeko eskubidea, eta jabeetan ere baziren, eskubide hori ahal bezain zabala nahi zutenak. Hiru eguneko soldataren zerga ez zukeen nornahik pagatzen. Pabe bait zen departamenduko hiri nagusia, hango bozkatzailen zerrenda badugu, gehienak abokatu, prokuradore, notario, uxer, mediku, botikario, negoziante, ostaler eta ofizial dira, ostaler eta ofizial handienak bistan dena. Ez da hor langile xoilik ezta laboraririk ere.

Neurri berak hartuz, hamar bat izanen ote ziren Heletan botoa emateko eskubidea izanen zutenak? 1790ko azaroaren 20an bildu zen beraz herriko biltzarra, lehengo Heletako moldean, nagusi eta etxezain. 56 ziren, 38 nagusi eta 18 etxezain. Eguneko soldata 10 sosekoa izanen dela Heletan erabakitzen dute, ahal bezainbat herritarrek goza dezaten botoa emateko eskubidea. Nagusiek aise gehiengo duten biltzar batetan. Biltzarraren txostenean nahasketa bat bada: 30 libera aipu da bozkatzeko ahala izateko: legeak 10 eguneko soldata zuen aipatzen. Bastidan, 20 bat kilometrotan, 20 sositan zen eguneko soldata, bai eta Hasparnen. Doblea!!!

Erabaki horren ondorioa hor dugu 7. dokumentuan. 1.125 bizilagun direlarik Heletan, bozkatzeko esku-bidea dutenak 186 dira.

Bigarren errepublika igurikatu beharko da Frantzian eskubide hori gizonezko guztiei emana izateko. Orduan gauza harrigarri bat gertatuko da Heletan. Ezker muturreko gorriak ziren Xaho eta Dindabururen alde bozkatuko dute

Heletan, Elizak, orduan zeukan pisu guztiarekin, zurien alderdia hartu zuelarik eta bestalde, gorriak, mamu beltzak iduriak zirelarik Heletan, Frantziako Iraultza denboran jasan araziak zizkietenen ondotik. Ez ote, parte bederen, demokraziari buruz urrats berri bat egin arazi zutelakotz, Xaho eta Dindaburuk: gizon guziek izan zezaten botua emaitako eskubidea nahi zuten.

### *Lehen dokumentua*

1749KO BILTZARRA:  
ETXEZAIN BAT JURADO  
1749-IX-21

*Le vingtun septembre mil sept cens quarante neuf avant midy au porche de leglise notre dame de la paroisse de helette, jour de dimanche a lissue de la grand messe, a l'assemblée capitulaire, par devant moy no/re royal soussigné présens les témoins bas nommés ont compareu et se sont assemblés petri me de la maison de parta, jaimé me de celle de curutchet, pierre métayer de celle d'iroldoy jurats me arnaud de Larre docteur en medecine sieur jeune de celle de Larre, saubat me de celle d'Etcheberry, pierre me de celle de garat, joannes métayer de celle de eyheraborde, joannes me de celle de Consolo, jaimé me de celle de Bidegaray, joannes métayer de celle dainciar, joannes me de celle de Cainbelar, joannes me de celle de Carricart, miguel me de celle d'irunborda, pierre munier de Ste marie, arnaud métayer de celle d'Etcheberry garrette, paisco me de celle de harguindeguy, predo me de celle de celhay, petry métayer de celle de haran, jaimé me de celle doihanburu, dominique me de celle de harismendy, joannes me de celle d'ospital, jaimé me de celle de curutcalde, domingo métayer de celle de bichino, gaston me de celle d'istilart, domingo me de celle d'Escande, Sebastien métayer de celle de garacoits et Saubat me de celle daharusteguy, Les tous habitants du présente lieu de helette, faisant tant pour Eux que pour les autres habitans absens duement avertis de léglise par le sieur curé, suivant la coutume ainsi quils lont déclaré, lesquels ont dit et déclaré que tant la communauté du présent lieu que celle du pais darberoue Etans en discussion avec le me de la maison de Berho dirissarry sur un terrain appartenant ala communauté dud. présent lieu et qui est aux confins et tout contre lad. maison de Berho, pierre me dela maison duhaldebehere deputé dupresent lieu a reconnu cy devant*

*conjointement avec les députés desd. pais darberoue le susd. terrain aud. de Berho sans aucun ordre ny pouvoir dela communauté du présent lieu par un acte contenant transaction au préjudice de la communauté du présent lieu que de celles desd. pais darberoue; Et comme il importe surtout aun chacun des habitans du présent lieu de retirer lesusd. terrain comme a Eux appartenant des mains dud. de Berho, cassant lasusd. transaction consentie par led. duhaldebehere de son coté en faveur dud. Berho; cest pourquoy lad. assemblée a nommé et constitué led. sieur de Larre medecin acceptant pour son syndic et procureur general et special sans que lune qualité derroge a lautre, auquel Elle donne pouvoir de le pourvoir par devant qui il apartiendra pour faire condamner led. de Berho au delaissement dususd. terrain cassant lasusd. transaction aussy bien que dagir si besoin est contre les communautés desd. pais darberoue suposé quon ne veuille y intervenir suivant lusage qui a été suivy jusqu'a present sur ces sortes d'affaires parmi les six parroisses darberoue et ce encore faite par lesd. communautés des d. pais darberoue d'y satisfaire, lad. assemblée charge led. syndic de demander la separation des communaux du present lieu d'avec leurs promettant de tenir bon ceque led. syndic fera sur tout ce dessus, et de luy payer solidairement ses peines vacations et avances suivant sa qualité ala reserve desa portion qil sera tenu de supporter enson propre, Et a chaque regalement de taille de lannée il luy sera payé ce quil portera justement dans son Etat, Etpour l'observation et Execution de tout ce dessus, Les susd. habitans, lad. solidité tenant ont chacun pour ce qui les concerne obligé leurs biens presens et avenir yceux fournis aux rigueurs dejustice, renonce aux renonciations necessaires et juré de ny contrevenir; fait etans presens pour témoins tristan dEtxaus me de la maison dEtxaus de St Esteven, Bertrand me de la maison de lapits du lieu dirissarry, Et predo me de la maison de sorhouet dud. lieu dirissarry, led. Sr de Larre, Et les. de harismendy curutcalde et garat ont cy signé Et non les autres habitans non plus que les temoins pour ne scavoit Ecrire ainsy quilz l'ont déclaré de ce Etans interpellés par moyd. no/re*

*signatures: Larre fils ainé, Garat Curuzalde harismendy Durrels no. re royal  
Contrôlé a La Bastide Clerance Le 22 Sp.bre 1749 recu douze sols Lambert  
ADPA E 10289  
ADPA= Archives Departementals des Pyrénés Atlantiques*

### ***Bigarren dokumentua***

#### ***EXTRAIT DES REGISTRES DES ETATS GENERAUX DU ROYAUME DE NAVARRE DU 1782-II-24***

*Sur le plan présenté par les députés du pays d'arberoue contenant quil seroit de la sagesse des etats de remedier aux abus qui se glissent a l'occasion delelection des jurats dans les communautés villageoises des defférents pays et vallées*

*du présent royaume en ce que les plans sont souvent defférés et des maitres valets ou metayers préposés par des veuves, mineurs et ecclésiastiques pour faire valoir des biens dont ils sont propriétaires, que les fonctions de jurats, toutes importantes notamment en ce qu'ils font le régalement et le recouvrement des impositions, qu'ils attestent la solvabilité des cautions et les indications des patrimoines assignés aux clerqs tonsurés pour être promus aux ordres ecclésiastiques sont sujettes ades mouvements, qu'il en résulte aussy que ce les metayers et les locataires concourent sans interet aux délibérations et qu'il seroit importants dy pourvoir. Lecture faite du dit plant les seigneurs commissaires sont davis que les anciens réglemens faits à ce sujet seront exécutes selon leur forme et tenue et encore qualavenir les jurats et collecteurs dans les pays vallée ou communautés vilageoises du présent royaume seront nommés en assemblée générale des habitants des communautés, chacun en droit soy convoqué aux formes ordinaires et pris dans le nombre des habitants propriétaires ou résidants que les jurats nommés seront tenus avant d'entrer en fonction de preter devant le juge du lieu le serment en pareil cas requis et les metayers, maitres valets ou locataires exclus des assemblées de la d. communauté. Sur quoi les trois ordres et états ont unanimement délibéré de la vis des Seigneurs commissaires et chargé Mon. le sindic de se pourvoir ou il appartiendra a l'effet de l'homologation de la présente deliberation. Collationné sur les registres de délibération des d. Etats par nous Sorhouet secrétaire.*

*Heletako kairrean 8. orrialdean*

### **Hirugarren dokumentua**

#### **EMAZTEAK BILTZARREAN 1789-V-28**

*L'an mil Sept Cens quatre vingt neuf et le vingt huitième du mois de may avant midy au lieu de hellette et au porche de L'eglise dans l'assemblée capitulaire convoquée aux formes ordinaires par Domingo Cubiburu jurat, assisté par Carricart son Secretre d'office qui a juré de remplir sa fonction en pareil cas et assisté aussi par Messire Charles de Ste Marie abbé lay du présente lieu et juge jugeant en la Cour Royale du pnt paÿs Darberoue qui a dit avoir reçu une lettre de la part de M. demendiry Subdélégué de Navarre le 4<sup>o</sup> du présent mois de may par laquelle il a été prié de la communiquer à tous les h.ans de la présente comté en langue vulgaire ce qu'il fit le dimanche 10<sup>o</sup> du mois courant et on lui déclara verbalement qu'on y délibéreroient le 17<sup>o</sup> suivant et pour cet effet tous les habitants setant assemblés après les offices divins et la même proposition leur ayant été faite le Sr Garra trésorier de la pñte Comté s'etant levé de sa place cria et déclara à toute Lassemblée qu'il ne falloit pas y délibérer et par ce moyen il empecha que la délibération ne feut prise C'est pourquoy on s'est aujourd'huy assemblés;*

*Sçavoir domingo çubiburu jurat, me jeune Deyherabide, Lavoeuve Detcheberry, Lavoeuve Diribarne, le Sr Larramendy, le Sr Lartirigoïn, le Sr Dospital, le Sr Etchebarne, le Sr Iranharan, le Sr Récart, le Sr Detchebehere, le Sr haranburu, le Sr Irigoïn, le Sr Istillart, le Sr Caldunbide, le Sr Curutchague, le Sr Landart, le Sr Larrondo, le Sr Ithurralde, le Sr Ucharret, le Sr harguindéguy, le Sr Sallaberriborda, le Sr Igousquibelar, le Sr Curutçalde, le Sr Bordagaray, le Sr Attais, le Sr Bidegaray, le Sr heguiborda, le Sr Olha, le Sr Etchegaray, le Sr Camino, le Sr mougnoteguy, le Sr Lajeunie, pierre camin, Domingo Detchepare, Joanes Récart, Garcian Landaburu, Maneis delissagaray, martin Laborde ou pochelu, Bernard Detcheberst, Martin Bidart, Jean Dortey, Esteben dethostey, Jean Daguerre dt Otharan, valentin pochelu, Joannes Etcheberry de garette, Gracian Ucharretagaray, valentin Casamajor, Valentin Bidart, predo Errecart, maneis ahoustey, Pierre harriet, pethan Chouriteguy, martin paiscoteguy, Joannes Diphar, maneis Lartigue, estebé Barberteguy, Joannes Darbel, mathieu munier du moulin diribarne, Joseph Iraçabal munier du moulin de Barachart, maneis Costera, franchisco Bordachoury, maneis Chehelalde, Estienne Dumon Diroldoy, Joannes de Gellos, (Marie Laco, marie Barachart: marratuak) maneis munier du moulin Daguerre, Bernard de Garra Deyheraborde, Domingo Sarhy, maneis ipharraguerre, enaud Oyhan Etcheberry, jeanpierre du Chateau de garrette, enaud Dulgorry, enauld Maig-naldeguy, Maneis Bortheiry, miguel Sourrourt, Bernard Chipiteguy, bertrand harismendy, Joanes Sallaberry, Bernard Chehela, enaud miramont, Joannes Caldunbey, Joannes Jaureguy de miramont, Pierre mettayer Diribarne Detchechar, Domingo haristoy, Joannes de Sanxo, martin Dubois daguerrebehere tristan Dithurralde andereteguy Enaud Bethirin, pierre harriet bertrand leconberry, tous habitans et domiciliés de la présente comté avoit été prise en assemblée générale composée de deuxtiers des habitans et après les formalités requises ont répondu qu'ils ignorent de quelle manière cette délibération fût prise trouve plus convenable d'acquitter les charges loccales du produit del'octroy ou sy elle preffere en y Renonçant de payer ces charges au marc la livre des impositions comme par le passé Surqouy tous les hañs qui sont icy prñs composant la présente assemblée ont délibéré et déclaré qu'ils préfèrent de renoncer pour toujours aud. octroy comme contraire aux droits et franchises de la navarre qui est un Royaume de francalus, et pour faire valoir et faire exécuter la présente deliberation selon sa forme et tenant tous ont nommé d'une voix unanime valentin Detcheberry Me jeune et prop.re de la maison Dirigoïn a qui tous ont donné le pouvoir de faire tout ce qu'il pourra pour obtenir la suppression du droit d'octroy, Luy promettant de le relever quitte et Indemne de tous les depens, que ce syndicat pourra occasionner en foy de quoy Ceux qui sçavent écrire ont cy signé avec nous et non les autres pour ne scavoir Ecrire de ce interpellés par nous dont acte (les arrateurs et le mt Sec.re approuvé par moy)*

*Ont signé: Marot, Salaberry, Lajunie, Etcheverry, Dainciart, Lartigue, casamaior, Bidart, Iturralde, Dubois, Landarretche.*

*P. harriet, ste Marie juge jugeant.*

*Heletako kainerrean 24. orrialdean*

### ***Laugarren dokumentua***

#### **ETXEZAINIK GABE**

**1789-V-31**

*L'an mil sept cent quatre vingt neuf et le trente un du mois de may à une heure de relevée au porche de léglise dans l'assemblée capitulaire convoquée aux formes requises et ordinaires par nous Jean Durrels, pierre Garra, baptiste fagalde et Joanne Recart, les quatre jurats du présent lieu, ont comparu les sieurs Dainciart, Durrels, le me damespil, le me de Garra, le me de Garat, le me de Biscay, le me d'acheritobehere, le me de heguiagaray, le me de heguiabehere, le me de chilhar, le me dolha, le me de Peilloborda, le me jeune Dainciburu, le me de harreguy, le me vieux d'ainciburu, le me de consolo, le me d'oihanetxevery, le me de teilleria, le me d'acheritogaray, le me de haranburu, le me d'Uhart, le me duhaldebehere, le me Etchart, le me d'uhaldegaray, le me de Çainbelar, le me de Larteguy, le me de harguindeguy, le me d'istillart, le me dirigoin cabaretier, le me daccabo, le me de Landart, le me de Saldunbide, le me de Camino, le me d'Etchebarne, le me de Mougnoteguy, le me de Sallaberriborda, le me de Lartirigoien, le me de Chuhiteguy, le me de Curutçalde, le me d'Iraharan, le me de heguy, le me de Carricart, le me de Suiburu et le me de Carricaburu cabaretier tous habitants fonciers dud. présent lieu. Sur ce qui a été représenté par les sieurs jurats, que les habitants de la présente communauté au nombre de quarante un prirent une délibération le neuf janvier 1787 pour faire exécuter larret du conseil 1751, qui avait accordé à la présente com.té le droit de percevoir un droit d'un sol pour chaque lot de vin et de six deniers pour chaque lot de cidre qui se débiteront en détail dans les oberges dud. présent lieu, que les jurats en places furent chargés ou leurs représentants de faire toutes les dilligences necessaires jusqu'à l' entiere exécution dud arret, ils ont dit aussy que par une ordonnance rendue du par Monseigneur l'intendant et la présente com.té a été autorisée de ramener à exécution led. arret et condamné au tiers de dépens ceux qui se sont opposés a son execution, quen conséquence le Sr de Mendiry Subdélégué commis pour faire l'adjudication auroit dud. droit expédié ses lettres portant quil se rendroit and. present lieu pour le six du mois courant auxfins de lad. adjudication, lesd. Srs Jurats ont dit encore que led. Sr Subdélégué nesetant point rendu pour le jour fixé, ils se sont transporté chez luy pour le requérir et quil leur a repondu que dans la délibération du dit pour 9 janvier suivant qui luy a été rapporté ne sétant point présenté et délibéré dans lassemblée ce qui lui convient de savoir. En conséquence*

la présente assemblée après avoir avoué c'est à dire, ceux présents à la délibération aud. jour 9 janvier ont après mure réflexion arrêté et délibéré savoir les vingt sept premiers dénommés cy dessus faisant tant pour eux que pour les votants absents et mentionnés dans la susd. délibération qui ont été dûment avertis qu'il est de l'intérêt de la com.té de ramener à exécution du dit pour et charge aux fins de diligences à faire le comitant par toutes les voix raisonnables les d. Sieurs Jurats et de requérir incontinent led. Sieur Subdélégué à se transporter aux fins de ladjudication dud. droit aud. présent lieu et de ne point s'aviser davantage d'appeler aux assemblées de la com.té les metayers ni autres que les habitants fonciers voulant qua cet égard la délibération des états du... homologuée par arrêt de la cour soient exécutés selon toute leur forme et teneur et les autres votants au nombre des dix sept y compris les cabaretiers et dans les impositions vu leur petite fortune ont été d'un avis contraire et lesd. Srs D'ainciart, Garra, Garat, harreguy, etchart, uhaldegaray et Larteguy ont cy signé et non les autres votants pour ne savoir écrire de ce faire par nous requis et le Sr Durrels que nous avons prié de nous servir de greffier pour la rédaction des présentes a aussi cy signé.

Dainciart Garra Larteguy  
Daguerre Fagalde  
Durrels Freffier

Heletako kaiserrean 25. orrialdean

### **Bostgarren dokumentua**

ETXEZAIN ETA ETXETIARREN SINDIKA  
1789-VII-25

Devant le no.re royal soussigné et témoins bas nommés ont comparu Martin Dubois, Domingo garat, Saubat Barbaste, Joannes Iribarnegaray, Arnaud hitta, joannes hiriart, Bernard Diturrihotz, tristant fagalde, Domingo oyharzabal, jacques Etchechoury, Joannes uhartegaray, Esteben Casamajor, joannes claverie, joannes Dargains, arnaud Dumon, guillen, Detchevers, jacques oyharsabal, Bernard Sorhouet, pascal Larrondo, tous métayers et fermiers de ce lieu de Hélette qui ont dit que par un usage abusif et injuste les métayers et fermiers de cette paroisse dont le nombre est environ cent vingt chefs de ménage ils sont exclus des assemblées de la communauté, de toutes les charges et fonctions, que malgré cette exclusion et par un abus, une injustice plus palpables, les prop.res fonciers qui ne sont qu'en nombre de soixante dix font la loy et forcent les exposants à une contribution sous le nom de capitation tandis que ceux cy n'ont aucune part dans l'administration de la chose comune quil est evident incontestable que les exposants doivent être ou admis dans les

assemblées dela com.té dans les charges et fonctions en un mot participer à l administration, ou être exempt de toute contribution... ce dune contribution arbitraire que le petit nombre ne pouvait avoir le droit de faire la loy au plus grand et les exposants d'étant pas les bailleurs des serfs il est urgent de reprimer de mettre un terme aux abus intollerables quils viennent de relever en conséquence les memes exposants déclarent nommer unanimement leur syndic le d. Joannes hiriart lequel ils chargent de faire toutes les démarches pour être dechargés de toute contribution excepté de la capitation personnelle indépendante des autres charges, a cet effet de se pourvoir là où il appartiendra et contre qui de droit plainte, dire et allegue ce que de raison, acquiescer aux seigneurs, en appeler, constituer et généralement faire tout ce qui est necessaire pour obtenir ce que dessus, avec promesse de l'indemniser de ses avances et vacations, dont acte, pur lexecution duquel tous les d. exposants ont fait les affectations fournisseries et renoncer nécessaires avec serment de ne point y contrevenir retenu au lieu de helette et au chateau de Ste marie rendu requis avant midy le vingt cinq juillet mil sept cent quatre vingt neuf. témoins noble charles de Ste marie Ecuyer de ce lieu et Sr Darraidou Gelos etudiant dayherre soussignés avec lesd dumon, fagalde dubois et casamajor non les autres comparants pour lesd sçavoir écrire de ce faire interpellés par moy nore

Fagalde Dumon Ste marie, Darraidou Gellos, Dubois  
Londaits, notaire royal d'Ayherre  
ADPA III E 2812

### **Seigarren dokumentua**

#### HAUTAGAI ETA HAUTETSI IZATEKO BALDINTZAK 1790-XI-20

L'an 1790 et le vingt du mois de novembre en assemblée générale de la commune de helette en Bassanabarre et en arberoue convoquée dans les formes ordinaires par les sieurs de pedro maitre de la maison digusquibelar maire pierre Durrels maitre de la maison de harismendy, arnaud Bidart maitre de la maison de Biscay et Domingo Etcheverri maistre dirigoin officiers municipaux.

Salvat Sr de Echeberry, Martin Sr Garat, Baptiste Sr duchaldegaray, jean Sr june duhart, jean Sr de Cembelar, Beltran Sr de Chuhiteguy, Domingo Sr de irigoin, Charles Sr de Ste Marie, Jean Sr de Consolo, Pierre Sr delarteguy, Jacques Amespil, jean Sr de heguiagaray, jean Sr de Saldunbide, jean Sr de heguiabehere, pierre Sr dainciburu, jean sr de landart, pierre mr june dainciburu, jean mr de pochelu, arnaud Sr detchegaray, jean mr Durrels, Salvat Sr deharreguy, jacques Mr de harretche, jean mr de mortaldey, pierre Sr de curutçalde, jean mr de borthairy, jean Sr de bordagaray, Laurans Sr de

*Carricaburu, jean Sr dapesteguy, jean mr de miramont, jean mr de Lacoteguy, Bertran mr de amestoiburu, Domingo Sr de Gastelu, jean Sr de, Bernard mr de bithirin, Domingo mr detchepare, arnaud mr durgorry, Bertran Sr detchemendy, Guillaume Sr de parta, jean Sr duhaldebehere, Domingo Mr derray, Jean mr d'aguerrebehere, jean Mr dipharaguerre, jacques Mr de Larrart, Jacques Sr diribarne, pascal Sr deiheralde, Jean Mr de landaburu, jean Mr de Serorateguy, pierre Sr de Larreteguy.*

*L'assemblée ainsy formée, le maire a dit que veu le decret de lassemblée nationale concernant la constitution des municipalité Rendu le 14 du mois de Décembre dernier et des lettres patentes du Roy qui la sanctionné et qui en a ordonné la prompte exécution il instan de procéder à la nomination des officiers de la nouvelle municipalité, que les citoyens actifs ayant seuls le droit de faire ce choix, et entrautes conditions requises pour être citoyen actifs ou électeurs les dit Decrets exigent une contribution directe de la valeur locale d'une afferme de trente livres et une contribution au moins de dix journées pour être éligible la presente assemblée doit délibérer sur la fixation du Prix de la journée de travail qui varie dans les différents pays à feïn déviter pour lavenir toute incertitude qui entraineroit toujours des embarras sur quoy vue délibération il a été arreté a lunanimité des suffrages que pour faire jouir autant qu'il est possible les habitants de la communauté des droits et privilèges précieux de citoyens actifs, le prix de la journée de travail restera fixée à dix sols moyennant quoy celui la sera citoyen actif qui paye une afferme de trente livres par an et éligible celui qui paye une contribution directe de qu'en surplus il sera fait incessamment un Tableau dans lesquels seront classés les citoyens éligibles et ceux qui ne sont que simples électeurs, afin que ceux la seuls soient convoqués pour lelection qui doit être faite incessamment des membres de la nouvelle municipalité et ceux qui ont sçu ecrire ont cy signé et ayant été pris le sieur jean Sorhouet pour secrétaire greffier.*

*Urrels, marot, Lartegui, Ste Marie, Larronde Vicairé, Fagalde, Landarretche.*

*Heletako kaiserrean 44. orrialdean.*

**Zazpigarren dokumentua**

*ZENBATEK DUEN BOZKATZEKO ESKUBIDEA  
1791-I-31*

1791.1.31 D'Épartement des Basses Pyrénées District de St Palais Canton d'holdy Municipallité de helette	Etat de la population active: et c Population Generale dela munici lité de Helette	
Nombre des citoyens actifs monte cent quatre vingtsix cy ..... 18	Nombre de personnes de tout sexe et de tout âge indépendants des citoyen actifs Cy..... 939	Total général dela Populati6n: mil cent vingt cinq cy 1125

*Nous pierre igusquibelar maire, pierre Durrels sieur de harismendy, arnaud Bidart Sieur de Biscay, dominique Etcheberry sieur d'irigoin, jean ourgorry sieur d'apesteguy et jean D'iribarnegaray sieur de Consolo jurats et jacques Garra sieur de ce nom, procureur de la commune, certifions que le présent état et veritable et avons cy signé harismendy et Garra et non les autres pour ne sçavoir ecrire ahelette le 31 Janvier 1791*

*Urrels, Garra, Sorhouet Scrc Greffier  
Heletako kainerrean 49. orrialdean*